

Babeserako zubia

Mont Saint Michel herri ikusgarria albiste bilakatu zaigu berriro. Bidai-agentziek ongi baino hobeto ezagutzen dute granitozko irlak eta horren gainean dagoen beneditarren abatetxeak turistengan sortzen duen xarma. Aitzitik, oso jende gutxi dauka irla mehatsupean duen arriskuaren berri. Dakigunez, itsasbehera eta itsasgoraren menpe dagoen errepidea da irlarako bide bakarra, baina Frantziako gobernuak zubi bat eraiki nahi du errepide zaharra ordezkatzeko. Sedimentazioa dela medio, errepidea eta inguruko apartakalekuak arazo bilakatu dira Mont Saint Michelen.

Biologoek baieztatu ahal izan dutenez, sedimentazioaren ondorioz itsasgora eta itsasbeheraren eragina moteldu dezakeen flora garatzen ari da irlaren inguruan.



Saint Micheleko badien pilatzen den sedimentuak eta irla inguratzen duten hareazko hesiak bertako ekosistemaren iraupena baldintzatu egingo dutela uste dute. Irlaren eta lehorraren arteko errepideak eta apartakalekuek itsasoak utzitako materialen metaketa areagotu egiten dute. Biologoek baieztatu ahal izan dutenez, sedimentazioaren ondorioz itsasgora eta itsasbeheraren eragina moteldu dezakeen flora garatzen ari da irlaren inguruan. Horrez gain, badiara beren urak isuritzen dituzten ibaien bokaleak artifizialki aldarazi dituzte eta horrek sedimentazio-arriskua handiagotu egiten du.

Denborak egin ez duena egingo ote du gizakiak?

Komoreak uharteretako arrantzaleek lehen alea harrapatu zuteneko geroztik, arriskupean bizi da zelakantoa. Bizirik diharduen fosil bakarrenetakoa da eta bitxia ezezik, ornodunek itsasoa utzi eta lehorrera jo zuteneko unea ulertu ahal izateko giltza ere bada irudiko animalia. Zelakantoaren lehen berria 1938. urtekoa da. Orduan ikusi zen lehen aldiz, mendeetan Komoreak irlen inguruetan bizi izan den animalia. Geroztik, etengabe



Bizirik diharduen fosil bakarrenetakoa da zelakantoa eta bitxia ezezik, ornodunek itsasoa utzi eta lehorrera jo zuteneko unea ulertu ahal izateko giltza ere bada irudiko animalia.

be murriztuz joan da zelakantoen populazioa. Azken datuen arabera, dozena erdira ez dira jadanik iristen. Arrantza ei da animalia horien etsai nagusia. Komoreetako arrantzaleei zelakantoa harrapatzea debekatu bazitzairen ere, gainerako espezien urritasunak horretara bultzatu omen ditu azken urte hauetan.

Erakunde ekologistek neurri bereziak eskatu dituzte animalia eder horren iraupena ziurtatu ahal izateko. Horien artean, babes-eremuak sortu eta errespetaraztea da garrantzitsuena. Horrez gain, arrantza-eremuak zelakantoa bizi den inguruetatik at sortzea eskatu dute, horrek alenduko bailituzke arrantzaleak. Jendea arazoaz jabearazteko, urpeko kamerak ezarriko dituzte. Horrek zelakantoa gertutik ezagutzeko parada ezin hobea eskainiko du.

Mozorroa erantzita

Zebra marra zuriak dituen animalia beltza ala marra beltzak dituen animalia zuria da?. EEBBetako ikerketa-zentru batean jadanik argitu digute kontua. Harrigarria badirudi ere, marrak ezabatzea lortu dute gene-manipulazioa eginez. Ondoko irudian ikus daitezke lortu zituzten emaitzak.

Edonola ere, esperimendua ez da estetika hutsean geratu. Zebren marrak, izan ere, animalia horiek duten babes-sistematik onena da. Sabanan bizi diren gainerako animaliek gauz ikus ez ditzaten, mozorro bikaina da soineko marraduna. Horrez gain, zebren marrak animalien nortasuna zehazten dute, marra-egitura guztiak desberdinak direlako. Uste



EEBBetako ikerketa-zentru batean zebren marrak ezabatzea lortu dute gene-manipulazioa eginez.

baino aldaketa gehiago sorraraziko ditu ikerketa bitxi horrek.

Sexua beharretara egokituz

Hienek gizaki askok berarentzat nahiko lukeen ahalmena dute: aldian aldiko beharren arabera, umaldian nagusi izango den sexua aukera dezakete. Kenian egin berri diren ikerketen arabera, hiena-talde batek aldi berean izandako umeen multzoan zein sexu na-

Hienek, aldian aldiko beharren arabera, umaldian nagusi izango den sexua aukera dezakete.



gusituko den erabaki dezake. Kenian aztertutako kasuan, hiena-taldea leku berean bizi izan zen bi urteetako umaldian arrak izan ziren nagusi. Lekuz aldatzeko eta toki berrian finkatzeko tenorea heldu zen urtean, ordea, emeak nagusitu ziren. Michigango Unibertsitateko biologoek zuzendu dituzte Keniako ikerketa horiek. Berriki plazaratu duten txostenean irakur daitekeenez, hienek belaunaldi berrien sexua aukeratzeko duten gaitasuna hiena arren eta emeen artean dauden desberdintasunen ondorio zuzena da. Hiena arrak, izan ere, taldearekiko lotura eskasa izan ohi dute. Hiena heldua izan baino lehen, arrak taldea utzi egiten du, beste edozein hiena-taldeko kide izatera iritsi daitekeelarik. Aitzitik, hiena emek taldearekiko fidelotasuna dute.

Sardinaren ehorzketa

Australiako kostaldean hildako sardinak nonahi ageri dira. Biologoek ezin izan dute gaurdaino argitu hildako sardinen misterioa. Gertakaria argitu asmoz, Port Lincoln-eko Itsas-Institutuan lanean jo eta su ari dira, baina orain arte ez dute deus ere lortu.

Australiako sardinak zerk erasotzen dituen ez daki inork. Dena delako horrek sardina helduak hiltzen ditu, 12 cm ingurukoak. Izurritea azaldu bezala desagertu egiten da hiruzpalau egunen buruan. Alabaina, ez du egun horietan sardina heldurik bizirik uzten. Lehen hipotesien arabera, sardinek jaten duten algaren bat omen da sarraskiaren eragilea. Hipotesi horrek, ordea, ez du azaltzen erasoaren selektibotasuna; hau da, zergatik hiltzen dituen sardina helduak eta ez ale txikiagoak edota espezie bereko gainerako arrainak.

Antilopea ere arriskuan

Kazakhastango antilopea arriskuan dago. Ez da albiste bera plazaratzen den lehen aldia, baina TRAFFIC erakundeak eman dituen azken datuen arabera, oraingoa baino egoera larriagorik

ez da inoiz gertatu. Legez kanpoko ehizak jarri du mehatxupearan antilopea. Ehiztariak gauaren ilunpean egiten dute lan eta zenbaitzuk diotenez, bertako agintarien babes ere badute. Duela lau urte, 10 milioi antilope inguru bizi zen iparraldeko estepan. Gaur egun, ordea, Kazakhastango taigara mugatzen da bere bizilekua; halaber, antilope-kopurua milioi bat alekoa baino ez da.



Kazakhastango antilopea arriskuan dago. Legez kanpoko ehizak jarri du mehatxupearan.

Antilopearen ehizak helburu nagusi bat du: animalien adarrak; goiko irudian azaltzen den ale ederrak harro erakusten dizkigun adarrak, hain zuzen. Txinako merkatura bideratzen dira adarrok eta han medikuntzan erabiltzen dituzte nagusiki.

